EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6

# H.P.B.ak DITUZTEN GAZTEEN HELDUTASUNERAKO IGAROBIDEAREN PLANGINTZA

## IGAROBIDERAKO NORBANAKO PLANA OSATZEKO GIDA

VITORIA-GASTEIZ 1997

**Gasteizko Pedagogi Aholkularitzategi 1 eta 2.**
Hezkuntza premia berezien arloa (TMP).

**Dokumentuaren egileak:**
Luis López de Ciordia Murgialdai
Rosa Mª Murguía Quincoces.

**Gainbegiratze-lankidetza:**
Natxo Martínez Rueda (FICE. Deustoko Unibertsitatea).

**Itzulpena:**
Jasone Agirre Ugartemendia
Luis López de Ciordia Murgialdai.

**Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza.**
Vitoria-Gasteiz. 1977ko apirila

## AURKIBIDEA


| | |
|---|---|
| **AURKEZPENA** | 4 |
| **1. ATALA: AURRE HAUSNARKETAK** | 6 |
| Txosten honen zergatia | 7 |
| Zer da eta zertarako balio du Igarobiderako Norbanako PlanaK? | 8 |
| Zein kontestutan erabiliko dugu INP? | 8 |
| Nortzuk parte hartuko dute bere elaboraketan? | 8 |
| Zenbat denborarako? | 9 |
| **2. ATALA: TRESNAK.** | 10 |
| Z.I.Programen ingurugiroan aurkezten diren tresnen kokapena | 11 |
| Gaitasunen Hasierako Ebaluazioa | 12 |
| Igarobiderako Norbanako Planari aurre egiteko era bat | 15 |
| Hezkuntza Programa Indibiduala | 23 |
| GLOSARIOA | 25 |
| BIBLIOGRAFIA | 26 |
| **3. ATALA: ERANSKINAK.** | 27 |
| Gaitasunen Hasierako Ebaluazioa jasotzeko formatua | |
| Igarobiderako Norbanako Planaren formatua | |
| Hezkuntza Programa Indibidualaren formatua | |

**AURKEZPENA**

*Azken urte hauetan gazteen txertaketa bai gizartean bai lan-munduan erabat konplexu bihurtu da. Faktore askoren eraginez: bere luzapena, bere dibertsifikazioa, Hezkuntza, Enplegu eta Lanbide sistemen arteko konexiorako zailtasunak, desenplegu egoera, beste arazo batzuekin loturik (etxebizitza, osasuna, aisia,…) heldutasunerako igarobidea erreztu beharreko momentu bat izango da neurri desberdinak artikulatuz.*

*Testuinguru honetan ekimen eta programa desberdinak sortzen dira heldutasuneko bizitzan txertaketa egoki bat ziurtatzea bilakatuz, adibidez: hezkuntza, formakuntza eta lanbide prestakuntzen kalitatea hobetzeko neurrien zehar, informazioa eta orientabidearen zehar, inplikaturik dauden sistema desberdinen arteko koordinaketa eta loturaren zehar, ….*

*Oro har esan genezake igarobiderako unea parte-hartzeko gune zehatz bat bihurtu dela.*

*Hezkuntza premia bereziak dituzten gazteekin ere eskuhartzeko gune zehatz bezala aurrikusten hasia da.*

*Nahiz eta gazte hauek gainditu behar dituzten ziltasunak gainontzeko gazteen zailtasun berberak izan, batik bat formakuntzarik ez dutenak, beraien igarobideari beste zailtasun batzuk gehitzen zaizkie -formakuntzarako aukera gutxiago, sarbide gutxiago lanpostuetara,….) eta gainera psikogiza izaeradun beste batzuk, adibidez gaitasun-eza ardatz zentrala ez den heldu-identitatea eratzeko zailtasuna.*

*Seguraski, batzuk eta besteak bereizten dituen elementurik esanguratsuena, hezkuntza premia bereziak dituzten gazte askorentzat **igarobide bakarra egotearena izan daiteke, inongo aukearik gabe edo oso eskasarekin**. Bidea aurrez jarria dute gaitasun-ezaren aurreritzitik, eta ez da aldaketa haundirik ematen gazteen egoera eta giza estatusean, beraien giza-egoerak betirako gazte itxura gehiago mantenduz helduena baino.*

*Zentzu honetan, hezkuntza premia bereziak dituzten gazteen igarobiderako mugimenduak gainontzeko gazteekin batera dituzten desafioz gain, beste nuklearrago bat planteiatzen du: bere giza-txertaketa helduei dagozkien rolak eta funtzioak aurrera eramanez.*

*Kontestu honetan beharrezkotzat jotzen da ekintza multzo bat artikulatzea, laburbildurik ondorengoak izango liratekeelarik:*

- *hezkuntza programen hobekuntza, eta batik bat, lanbide formakuntza programena.*

- *Enplegu, etxebizitza, aisia eta elkartean partehartze aukeren gehikuntza.*

- *Aurreko bi neurrien artikulaketa zerbitzu eta programen koordinaketa eraginkorrarekin, era horretan igarobide dibertsifikatuen diseinua errezteko eta gazteen behar bereziei erantzunez heldu-bizitzan espero diren emaitzak ziurta ditzaten: enplegua, etxebizitza eta elkarte mailan partehartzea.*

*Igarobiderako ibilbide hauek diseinatzerakoan gida honetan aurkezten zaigun* ***Igarobiderako Norbanako Plana*** *(INP) tresna baliogarria izan daiteke, oinarrizko lau prozesuen garapena errazten duelako igarobide eraginkor baten plangintzaren barruan:*

- *ikastetxea, gaztea, familia eta eskola ondorengo zerbitzu eta programen arteko lankidetza.*

- *beharrezkotzat jotzen diren proiektu eta itxarobideen definizioa eta argiketa.*

- *helduentzat dauden aukera eta serbitzuei buruzko informazioa eta ebaluaketa.*

- *etorkizuneko beharretara egokitutako eta moldatutako formakuntza, batik bat inguruko lan-merkatura.*

*Azken finean igarobide prozesuan inplikaturik dauden eragile desberdinen arteko lankidetza eustarritzea bilatzen du emaitza zehatza ziurtatzeko:* ***helduen munduan heldua izatea****.*

**Natxo Martínez Rueda.**
Deustoko Univertsitatea. Bilbo.

# 1. ATALA: AURRE HAUSNARKETAK

## TXOSTEN HONEN ZERGATIA.

Adimen-urritasunari lotutako H.P.B.ak dituzten gazteen hezkuntza prozesua, derrigorrezko eskolarizazioa burutu ondoren (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), Zereginen Ikaskuntzarako Programetara heltzen da, 16 urte bete ondoren.

Ikaslego honek 3 edo 4 urte pasa ahal izango du programa honetan, azken helburua lan mundurako eta helduen bizimodurako prestatzea delarik, bere gaitasun eta trebetasunen bidez eremu pertsonal, sozial eta laboralean konpetenteago eta eragileagoa izan dadin.

Hauek dira programa hauen eskuharmenerako hastapenak:

- curriculo funtzionala.
- komunitatean oinarritutako irakaskuntza.
- zerbitzuen fokatze integratua eta integratzailea.
- lan mundurako orientazioa, eta
- igarobide prozesuaren plangintza.

Guzti honengatik ikastetxeak **ez dio bakardadean aurre egin behar** H.P.B. dun gazte baten heldutasunerako igarobidearen plangintzari, baizik eta beste agente batzuen laguntza bideratu beharrean aurkituko da:

- familia,
- ikaslea bera, eta
- adin hauetan zein ikasketa hauen amaieran parte har dezaketen zerbitzuak (Gizarte Zerbitzuak, Denbora Librekoak, Enplegukoak, .......)

Agente bakoitza hainbat galderen aurrean aurkituko da: Zer agingo du gazte honek 21-22 urte dituenean? Nola biziko da? Zertan lan egingo du?, eta galdera hauei aurre egitean ekintza batzuk hasiko ditu, era honetan bere orientazioa eta ondorengo kokapen egokia bideratuz.

Horrela, **Igarobiderako Norbanako Plana (INP)** parte-hartzaile guztien arteko plangintza bateratua eta beraien arteko koordinaketa errezteko **tresna ezin hobea dugu,** eguneroko ekintzei zentzua eta koherentzia emango dielarik (ikastetxeak programa hezigarri/erakasgarri bat osatzen du, komunitateak denbora librerako ekintzak eratzen ditu, familia nora eraman planteatzen da: elkartera, Gizarte Etxera, lan irteerak bilatzen ditu, ......).

INPa tresna bat dugu eta era berean bitarteko batzuk beharrezkoak ditu, hau da:

- **Hasierako Ebaluaketa,**
- **INP bera, eta**
- **Hezkuntza Progama Indibiduala.**

Azkenik, esan beharrean gaude, hau, h.p.b.ak dituzten gazteen heldutasunerako igarobiderako proposamen orientatzaile bat besterik ez dela, eta bere ondoan beste eredu asko sor daitezkela.

## ZER DA ETA ZERTARAKO BALIO DU IGAROBIDERAKO NORBANAKO PLANAK?

INPa hezkuntza programa baino gehiago **zerbitzu-plana** da:

> " pertsona zehatz baten igarobidea erreztea bilatzen duen tresna. Hau da, nagusi edo helduen bizi-baldintzak eskuragarriak bihurtuko dituen tresna, batez ere lanean, etxean eta komunitatean".
>
> Martínez Rueda, 1995

Helduen bizimodura igarobidea antolatzeko eragile desberdinen koordinaketa errezten du (ikastetxea, familia, ikaslea bera, enplegu zerbitzuak, denbora librerako zerbitzuak....) etorkizun laburrean (3-4 urte) gaztea non egongo den, zer egingo duen eta prozesu hori ziurtatzeko zein ekintzari hasiera eman beharko diegun galdetuz.

## ZEIN KONTESTUTAN ERABILIKO DUGU INP?

Azken urteotan jaso dugun esperientziak ikastetxearen kontestua, batipat Zereginen Ikaskuntzarako Programetan, **INParen hasiera proposatzeko lekurik egokiena dela** esaten digu:

- aurrera eramateko gai diren profesionalen **azpiegitura duelako** (ZIGko bi irakasle, ikastetxeko orientatzailea eta zonaldeko TMP) eta,

- adin honetako (12-20) ikaslegoa eguneko denbora gehiena eskolatua dagoenez, bere hezkuntza programa plangintza-marko batean kokaturik egotea ezinbestekoa delako.

## NORTZUK HARTUKO DUTE PARTE BERE ELABORAKETAN ?

INP bat diseinatu, elaboratu eta praktikan jartzeko gutxienezko eragileak hauek dira:

- ikastetxetik, ZIGko irakasleak eta orientatzailea.
- gaztea bera.
- etxetik, gurasoak edo tutoreak.

Hauekin batera, parte hartu beharko lukete:

- Gizarte langileak, bai eskola ingurukoak bai zonaldeko Gizarte Zerbitzukoak.
- Denbora Libreko arloko hezitzaileak (Gizarte Zentruak, kale hezitzaileak, SAD, ....).
- Enplegu Zerbitzuak.
- TMP.

Prozesuaren zehar ez da beharrezkoa izango eragile guztiak momentu guztietan egotea. Adibidez, Enplegu Zerbitzuen presentzia ez da, agian, beharrezkoa izango Zereginen Ikaskuntzarako Programaren 3. urte arte, enplegu-praktikekin eta etorkizuneko lanpostuarekin zerikusia duten plangintza eta erabaki-hartzetan.

Dena den, askotan garrantzitsuena ez da izango eragile guztien presentzia fisiko bateratua, baizik eta zerbitzu guztien koordinaketa egokia ziurtatzea.

## ZENBAT DENBORARAKO ?

Igarobide plangintzak luzerako izan behar dute. *Wehman, Kregel eta Barcus-ek (1985),* diotenez, gazteak bere ikasketak amaitu baino lau bat urte lehenago idatzi beharko litzateke bere Igarobiderako Norbanako Plana eta, gutxienez, urtean behin errebisatua eta moldatua, gaztea/heldua eskola ondorengo kokapenera arrakastaz egokitu bitarterarte.

Beraz, lehen bait lehen hasiera ematea eta idatziz jasotzea proposatzen dugu, baina gaztea ezagutu arteko denbora hartuaz. Hau dela eta, gure esperientziaren arabera, unerik egokiena lehenengo ikasturteko azken hiruhilabetea edo bigarren ikasturteko lehenengo hiruhilabetea (kontutan izanik gazteak 3-4 urte pasako dituela programa honetan) iruditzen zaigu. Horrela, INPak bi edo hiru urtetan zehar ikastetxe, elkarte, familia eta abarren zeregin hezitzailea gidatuko du.

# 2. ATALA: TRESNAK

## ZEREGINEN IKASKUNTZARAKO PROGRAMEN INGURUGIROAN AURKEZTEN DIREN TRESNEN KOKAPENA




I: Ikasturtea. H: Hiruhilabetekoa. Z:Zikloa.

## HASIERAKO EBALUAZIOA

Hasierako ebaluazioa (H.E.) ikastetxeak egiten du, hau da, bertako Zereginen Ikaskuntzarako Gelako (ZIG) irakaslegoak, orientatzailearen laguntzaz. Azken honek, Talde Multiprofesionalaren informazioa jasotzen du eta, beharrezkoa ikusiz gero, eguneratuko du.

Irakaslegoak aurreko eskola etapetan jarraitutako prozesuaren informazioa jasoko du (txosten akademikoa, curriculum egokitzapenak, ....) eta ezer planifikatu aurretik, ondorengo informazioa lortuko du:

- gaztearen behaketa ikas egoeretan
- familia eta ikaslearekin egindako elkarrizketetan

aspektu batzuetan dituen gaitasun eta beharrei buruzkoa. Hau da, aztertuko du **zer dakien** egiten, **nola egiten** duen eta **zer behar duen** hainbat ataletan:

- Komunikazioa
- Gizarte-trebetasunak eta elkarteratzea
- Autonomia pertsonala, eta
- Lan-orientabidea

Atal hauei, hemendik aurrera **EREMU**[*] deituko diegu.

Baina ez ditu eremu hauek IKASTETXEAREKIKO soilik baloratuko, baizik eta ETXEAREKIKO eta ELKARTEAREKIKO ere, aurrerantzean **INGURU*** deituko diegunekiko, jakina bait da h.p.b.ak dituen gazteak ez duela komunikatzeko edo erlazionatzeko gaitasun berbera izaten etxean, ikastetxean (eta honen barruan ZIGan edo gela arruntean) edo kalean, lagun-taldean, elkarteko serbitzuak erabiltzean....

Inguru eta eremu bakoitzean H.E. hau errezteko bilketarako horrietan **adierazle*** sorta bat aurkezten dugu, alde batetik, ahalik eta gehien zehazteko eta, bestetik, aukera guztiak agortzeko, hau da, irakaslegoak ez dezala aztertu beharreko portaera gehiagotan pentsatu beharrik izan. Dena den, irakaslegoak, kontestualizatzerakoan, beharrezkoak ikusitako adierazleak ken edo gehi ditzake. Ohizkoa izaten da atal eta adierazle guztiak osatzeko kezka; zentzu honetan, momentuan osatu ahal direnak bakarrik osatuko dira.

**Noiz eta zertarako behar da H.E. hau?**

Gazte batek Zereginen Ikaskuntzarako Programa hasten duenean, ZIGko irakaslegoak planteiatu behar duen lehen pausoetako bat H.E. egitea izango da; horretarako **lehenengo hiruhilabetea** erabiliko da, denbora horretan inguru eta eremu bakoitzean dituen konpetentziak aztertuko dituelarik **irakaskuntza/ikaskuntza ekintza eta ikaslea zein familiarekin izango dituen elkarrizketen bitartez.**

---

[*] *Ikusi Glosarioa*

**Zer paper jokatzen du ZIGko irakasle bakoitzak?**

Nahiz eta profesional bakoitzaren formakuntzak arlo zehatz bat ebaluatzera bultzatu, adibidez, PedagogiaTerapeutikoko irakasleak (P.T.) Komunikazioaren eremua eta Tailer Maisuak (T.M.) Lan-Orientabidea, komenigarriena **elkarren artean egitea** litzateke ondoren aipatuko ditugun bi arrazoiengatik:

- badira, aurrez, bietako batenak ez diren eremuak: Autonomía pertsonala, Gizarte-trebetasunak eta Elkarteratzea.

- eremu arteko elkar-erlazioek beharrezkoa egiten dute ebaluaketa bateratu hau, garrantzitsuena beharren inguruan egiten diren amankomunean jartze eta erabaki hartze prozesuak direlarik

Ez litzateke ere egokia izango ebaluaketa bateratu hau ikaslegoa banatzea bezala ulertzea.

H.E. honetatik abiatuz, eta lehenengo urterako, gaztearen gaitasun eta trebeziak garatzen joango den programa orokor bat osatuko da.

Programa orokor honen ondoren (hiruhilabete 1 edo 2koa) INP hastea planteiatzen hasiko gara,

- **gaztea hobeto ezagutu dugulako: zer dakien egiten eta zein ingurutan egiten duen,**

- **nola ikasten duen eta nola irakasten diogun ikertu dugulako,**

- **informazioa biltzeko eta Zereginen Ikaskuntzarako Programa zer den azaltzeko familiekin harremanetan jarri garelako, eta**

- **Igarobide Taldea (igarobide prozesuan erabakiak hartuko dituen pertsonen taldea) osatzeko zein eragilekin hartuemanetan jarri behar garen ikusi ahal izan dugulako.**

## Gaitasunen Hasierako Ebaluazioaren orri baten adibidea

**INGURUA: ELKARTEA**

| EREMUA: AUTONOMIA PERTSONALA | | |
|---|---|---|
| **Adierazleak*** | **Gaitasun maila*** | **Beharrak*** |
| – *Bere izena, abizenak, helbidea, sexua, nazionalitatea, jaioteguna eta adina dakizki.*<br>– *Agiriak ezagutu eta erabiltzen ditu: N.A.N. Seguritate Soziala. Bonobusa, e.a.....*<br>– *Bere ahalmen eta mugak ezagutzen ditu.*<br>– *Helduekin identifikatzen da, beraien ohiturak, portaerak eta abarrak....baloratuz eta hartuz.*<br>– *Gatazkak ebazten ditu.*<br>– *Semaforo, su, eta abarren aurrean arriskuaren zentzua du....*<br>– *Arriskuaren aurrean laguntza eskeintzen du, gai den laguntzak erabiliz.*<br>– *Emergentzi, istripu eta abarren aurrean badaki nora jo edo zer egin...*<br>– *Etxe ingurura irteten da eta zailtasunik gabe itzultzen da.*<br>– *Bideak arretaz gurutzatzen ditu, zebrabide eta semaforoaz baliatuz.*<br>– *Hiriko zein auzoko leku edo gune bereziak ezagutu eta bilatzen ditu.*<br>– *Elkarteko hainbat zerbitzuen funtzionamendu eta helburua ezagutzen ditu: bankuak, posta,.....*<br>– *Garraioak ezagutu eta erabiltzen ditu.*<br>– *Erosketak egiteko gai da.*<br>– *Telefono publikoak erabiltzen ditu.*<br>– *Bere portaera eta bulkadak erregulatzeko gai da.*<br>– *Suertatzen zaizkion egoera arazodunei irteera bilatzeko gai da..* | . *Bere datu pertsonalak dakizki.*<br>. *Gatazka txikiak ebazten ditu.*<br>. *Arriskuaren zentzua du.*<br>. *Arriskuaren aurrean laguntza eskeintzen du.*<br>. *Istripu baten aurrean badaki nora jo*<br>. *Etxe ingurura irteten da eta zailtasunik gabe itzultzen da.*<br>. *Bideak arretaz gurutzatzen ditu.*<br>. *Erosketak egiteko gai da.*<br>. *Bere portaera eta bulkadak erregulatzeko gai da.* | . *Bere familiaren datu pertsonalak jakin.*<br>. *Agiriak ezagutu eta erabili: N.A.N. Seguritate Soziala.....*<br>. *Bere ahalmen eta mugak ezagutu.*<br>. *Erosketak egin hiritik.*<br>. *Bere hiri eta auzoaren kaleak ezagutu eta ikasi.*<br>. *Hiriak eskaintzen dituen elkarteko zerbitzuak erabiltzen jakin.*<br>. *Telefono publikoak erabiltzen jakin.*<br>. *Suertatzen zaizkion egoera arazodunei irteera bilatzeko gai izan.* |

**Behar dituen laguntzak:**

* *Ikusi Glosarioa*

## IGAROBIDERAKO NORBANAKO PLANARI AURRE EGITEKO ERA BAT.

H.p.b.ak dituen gazte baten INPri, idatziz, hasiera emateko unerik egokiena Zereginen Ikaskuntzarako Programaren lehenengo ikasturtearen amaiera edo bigarren ikasturtearen hasiera izango litzateke.

Lehen aipatu dugun bezala, ikastetxeak iniziatiba hartzea eta Igarobide Taldea osa eraztea komenigarria litzateke.

Horretarako, ZIGko irakaslegoak ondorengo pausoak burutu beharko lituzke:

1º H.E. eguneratzea lehenengo ikasturteko lorpenekin.

2º INPko datu pertsonalak osatu.

3º HASIERAKO EGOERA orria bete. Orri honetan (hurrengo orrialdeko eredua ikusi), etxean, ikastetxean eta elkartean duen egoera eta partehartze maila, momentu horretan, jasoko dira, dituen edo behar izango dituen laguntzaz batera.

Erreza izango da jasotako informazioa horri honetan jasotzea:

- gaztea, dagoeneko, ezaguna izango delako
- Hasierako Ebaluazioa eguneratua egongo delako, eta
- lehenengo ikasturtean zehar, gaztearekin eta familiarekin elkarrizketak burutuko zirelako.

4º Gaztearen INPri buruzko plangintza eta erabaki-hartzerako, prozesuaren momentu honetan, beharrezkotzat jotzen diren pertsonak deitu bilera batera, aurrez bileraren helburua ezagutzera emanez. Gutxienez orientatzaileak, ZIGko irakaslegoak eta gurasoek edo tutoreek parte hartu beharko lukete (beste eragile posible batzuk: gela arrunteko tutorea, gizarte langilea.....). Gazteak berriz, parte hartzeko eskubidea du, baina ez derrigortasunik; beraz, ez dugu behartuko parte hartzera, baina animatu bai.

5º **Igarobide-taldearen lehenengo bilera.**

Lehen bilera honen helburua guztien artean ondorengo galderari erantzutea izango da: **2 edo 3 urteko epean, zer gustatuko litzaizuke gertatzea (h.p.b.ak dituen gazteari),** hau da, Zereginen Ikaskuntzarako Programatik irtetean, etxea, ikasketa, elkartea eta lan munduaren inguruetan? (ondo legoke eskualdeko baliabideen gidak kontsultatzea)

## Hasierako egoeraren betetako orri baten eredua

| | HASIERAKO EGOERA | |
|---|---|---|
| | **Gaur egungo egoera eta partaidetza-maila** | **Laguntzak** |
| **ETXEA** | *Herri batean bizi da bere guraso eta anaiekin. Bere aita jubilatuta dago eta baliourritasun-agiria dauka. Bi anai haundiagoak ditu, bat 28 urtetakoa, kirolari famatua, metalgintzan lan egiten duena; beste bat, 23 urtetakoa, adimen urrikoa, baliourritasun-agiria duena eta lanerako prestakuntzako lantegi batean lan egiten duena.<br>Etxean laguntzen du, bere ohea egin, mahaia prestatu eta mandatuak egiten ditu.<br>Etxebizitza mota: Nahiz eta herrian egon ez da baserria, hortu txiki bat du: 200m$^2$<br>Familia arteko harremanak: Ez dakigu.<br>Gurasoak: Arreta egokia semeari.* | *Anaiari dagozkion laguntza ekonomikoak.* |
| **ESKOLA** | *Bere lehenengo ikasturtea ZIGan.<br>Hezkuntza Programa Orokorra L.H.ko 5. mailan oinarrituta dago, Komunikazio eremuari dagokionean. Bere Hezkuntza Programan Autonomia Pertsonala, Gizarte-Trebetasunak eta Elkarteratzea eta Lan-Orientabidea eremuak sartzen dira; azken eremu hau lantzeko tailerrera joaten da moda eta zurgintza landuz.<br>Integratzen den maila: IEEko 1. maila<br>IEEko 1. Mailako ikasgaiak: Erligioa, Gorputz-hezkuntza, Informatika eta Tutoretza.<br>Nahiko ondo dago integratuta ZIGko taldean. Berak esaten du ez litzaiokeela ZIrako gelan bakarrik geratzea gustatuko.* | |
| **ELKARTEA** | *Herritik, bizikletaz eta bere kabuz ibiltzea gustatzen zaio. Berak futbola nahiago duela esaten du. Garraio publikoa erabiltzen du, telefono publikoa ere bai<br>Asteburuetan herrian geratzen ohi da. Berak lagunak dituela esaten du, batzutan beraiekin geratzen dela.<br>Egoera, irteteko, igandeetan egiten da zailagoa.* | |

Lehenengo bilera honen metodologia zera litzateke:

- Lehenik, pertsona batek bilera dinamizatuko du, beste batek han esaten dena, idatziz, **ITXAROBIDEEN*** FORMULAZIOA horrian jasotzen duen bitartean. Bilera honetan, familiak, gazteak berak eta ikastetxeak beraien usteak adierazi beharko lituzkete (hurrengo orrialdeko eredua ikusi),.

- Ondoren, ahal bada, bilera amaieran **itxarobideen sintesi batera** iritsi behar da, denen adostasuna jasotzeko irakurriz.

Era honetan, ikastetxeak familiarekin harremanetan jartzeko erabili ohi duen estiloa aldatzen da; ikastetxeak ez du esango zer komeni zaion gazteari, ezta familia orientatu eta, batzutan, zenbait erabakien egokitasunetaz konbentzitu ere, baizik eta gaztea eta familiaren usteekin kontatu beharko du, eta beraiekin batera etorkizuna erabaki.

*Oharrak:*

∗ Bilera zuzenduko duen pertsonak, profesional aditua izan beharko luke; eragile bakoitzaren adierazpen librea erreztuko duena eta ondoren guztia ordenatzen jakingo duena. Hau da, komenigarria denean, gai izango da era zuzenean edo zeharka arakatzen jakiteko, baina beharrezko eta bidezkoak ikusten diren datuetan bakarrik, manejatu ezingo diren datuak baztertuaz.

∗ Bilera bat iritzi baikorrarekin amaitu daiteke eta ezertarako balio ez; agian ez da nahikoa sakondu konfliktoak ekiditzeagatik edo esperientzi faltagatik, dinamizatzaileak jakin ez duelako. Eta nahiz eta lasai irten denok, ez dira usteak garbi eta era egokian zehaztu, prozesuarekin jarraitzea zaila gertatuko delarik. Horregatik, bilera bukatu baino lehen gaztea eta bere ingurugiroaren (familia eta elkartea) posibilitateekin bat dauden itxarobide, xede, helburu eta ekintzak ezartzen gai izango garelako ustea izan beharko dugu.

6º Ikastetxeak itxarobideen sintesia zehaztuko du **XEDEAK*** bezala, eta hauekin bat eginik **HELBURUAK** definituz. Ekintza honek Taldearen urrengo bilera erreztu eta prozesua dinamizatuko du bilerak arindu eta gutxituz.

---

* *Ikusi glosarioa*

* *Ikusi Glosarioa*

## Itxarobideen sintesiaren betetako orri baten eredua

**Zer gustatuko litzaizuke hurrengo urteotan gertatzea?**

| | Ikaslea | Familia | Eskola | Itxarobideen sint. |
|---|---|---|---|---|
| **ETXEA** | | *Ez da ondo moldatzen bere anai ertainarekin* | | *Etxean ondo dagoela estimatzen da eta berdin jarraitzea espero da, familiaren bizitzan parte hartuz.* |
| **ESKOLA** | | *Ados ZIGan jarraitzearekin* | | *Bere prestakuntza ZIGn jarraitu eta bere hezkuntza prozesua ez moztu. Azken ikastutean, Lanbide Hastape-nerako Ikastegi batean (LHIK) sartzeko posibilitatea.* |
| **ELKARTEA** | *Soldaduskara joan nahi du, baina libra baldin baliteke ez litzatekeela joango onartzen du.*<br>*Bere lagunekin nahiko ateratzen dela uste du.* | *Aitak ez du hain erreza ikusten semeak dioena. Independenteagoa izatea gustatuko litzaioke.*<br>*Ados daude baliourritasun-agiria lortzen saiatzearekin.* | *Soldaduskara ez joatea hobe litzatekeela pentsatzen dute, baina gaztea ados badago. Hezkuntza prozesua ez moztea hobe litzatekeela uste dute.*<br>*Baliourritasun-agiria lortzeko balorazioa egitera joateko posibilitatea planteatzen da.* | *Momentuz, ikasketa-luza-mendua soldaduskarako.*<br>*Ados baliourritasun-agiria eskatzearekin.*<br>*Ateratzera eta lagun gehiago izatera behartuko zaio*<br>*Bere kirolekin jarraitu.* |
| **LANA** | *Osaba batek zurgindegi bat dauka eta gazteak han lan egin lezakeela pentsatzen du.* | *Ez dute posiblea ikusten bere osabarekin lan egitea.*<br>*Beste lanbide batzuk ezagutuko balitu agian besteren bat gustatuko litzaioke.*<br>*Ahal badu "erdi lanbide bat" ikas dezala.* | *Lan egiteko gai ikusten da.* | *Enplegu normalduan lan egiteko gai ikusten da.* |
| | | | | **Data**: |

## Xede eta Helburuen  betetako orri baten eredua

| | XEDEAK (Hemendik 2 edo 3 urtetara kokatuta) | HELBURUAK (Xedeen zehazpena) |
|---|---|---|
| **ETXEA** | *Beste partaide bat bezala familiako etxean jarraitu.* | *Familiako beste partaideek bezala ardurak har ditzala etxean, komunika dadila eta familiaren bizitzan parte har dezala.* |
| **ESKOLA** | *ZIGn eta gela arruntan integrazioarekin bere hezkuntza prozesua bete.*<br>*Azken ikasturtean, Lanbide Hastapenerako Ikastegi batean (LHIK) sartzeko posibilitatea* | *Lanbide Hastapenerako Ikastegi batean (LHIK) sartzeko behar den prestakuntza har dezala.* |
| **ELKARTEA** | *Sodaduskara joatetik libratu bere hezkuntza prozesua ez mozteko eta berarentzat komenigarria ikusten ez delako.*<br>*Independenteagoa izan, lagun gehiago eduki, gehiago atera....* | *Soldaduskara ez joan.*<br>*Bere inguruan eta bere adinari dagozkion ekintzetan parte hartu.* |
| **LANA** | *Lan arruntaren munduan, ez kualifikatutako lanetan, sartu.* | *Beste lanbide batzuk ezagutu bere preferentziak argitzea lortzeko.*<br>*Lanbide Hastapenerako Ikastaro bat egin.* |

7º TALDEAREN BILERA deitu. Ikastetxeak berriro Igarobide Taldea deituko du (hau da gurasoak, gaztea eta beharrezkoak ikusten diren pertsonak: gizarte langileak, denbora librerako hezitzaileak, .......inguruaren posibilitate eta kasu bakoitzaren beharren arabera) INPeko helburuak ezagutzera emateko eta ekintzen diseinu eta banaketan parte hartzeko.

**8º Ekintzak zehazteko Igarobide Taldearen bigarren bilera.**

Aurreko bileran hartu zen itxarobideen sintesiaren laburpena errepasatuz hasiko da bilera, itxarobide horiek xede bezala nola berridatzi ditugun azalduz.

Nolabait, lehenengo bileran onartu genuen hura, etxea, ikastetxea, elkartea eta lan inguruetan gaztearekiko geure nahiak ziren eta, sakonean, hauexek dira heldu-bizitzarako prozesuan ditugun xedeak.

Jarraian, xede horiek zehazteko idatzi ditugun helburuak azalduko dizkiegu. Xedeetatik helburuetarako pauso honekin zehaztapen prozesu bati hasiera ematen zaio, ekintzekin amaiera emateko.

Bilera honen helburu garrantzitsuena, ekintzak zehaztea da. Horretarako, GARATU BEHARREKO EKINTZEN ESPLIZITAZIOA horriak banan banan hartu eta beteko dira. Lehenengo orria, adibidez, *Etxea* ingurukoa da; ezarri diren helburuak (ahal izanez gero ez bi baino gehiago) irakurriko dira eta haien lorpenerako zein ekintza komeni den martxan jartzea erabakiko da, eta bertan daudenetariko nor arduratuko den ekintza bakoitzetaz.

Ekintzen lau horriak bete ondoren, INParen fase hau bukatutzat emango da eta urrengo bileraren data ezarriko da, parte hartzen duen eragile bakoitzak ekintzen garapena nola daraman eta aldaketaren bat, bai ekintzetan bai helburuetan bai xedeetan, sartu beharra ikusten duen azal dezan.

**Igarobiderako Norbanako Plana hasi da.**

**Ekintzen betetako orri baten eredua Helburu eta Inguru konkretu batzuetarako**

| | Helburua | Ardurad. | Ekintzak | Data |
|---|---|---|---|---|
| INGURU: ELKARTEA | *Soldaduskara ez joan.*<br><br>*Bere inguruan eta bere adinari dagozkion ekintzetan parte hartu.* | Familia/ikasl. | *Soldaduskarako luzamendua.*<br>*Baliourritasunen balorazio-zerbitzura joan*<br><br>*Kirol-ekintzetara joaten jarraitu* | |
| | | Ikastetxea | *Autonomia Pertsonala eta Gizarte-Trebetasunak garatuko dituen Hezkuntza Programa eratu.*<br><br>*Gazteentzako ekintzen eskaintzari buruzko informazioa lortzeko eskualdearen gizarte-laguntzailearekin konektatu.* | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

**INP ERATZEKO PAUSOAK. LABURPEN-KOADROA.**

- **Ikatetxearen aurre-lana:**
  - Datu pertsonalak osatu.
  - Hasierako Egoeraren horria bete.
- **Igarobide-Taldearen 1. bilera.**
  - Itxarobideen sintesia.
- **Ikastetxearen lana:**
